

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ikaztegieta



Aurkibidea

Udalerria: Ikaztegieta

Sarrera



Ikaztegieta Oriako ibarreko udalerrri Gipuzkoarra da. 2 km karratuko azalera du. Donostiatik 32 kilometrotara kokatua, Alegia, Orendain eta Baliarraingo udalerriekin egiten du muga. Iraganean Goierriko eskualdearekin lotu izan den arren, gaur egun Tolosaldeko eskualdearen baitan dago. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

- **Biztanleak:** 464
- **Euskaldunak:** %88,83

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **8**
- Pasarteak: **25**
- Transkribatutakoak: **3**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **25**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Mari Carmen Amundarain

Rosario Amundarain

Pina Amundarain Esnaola (1931)



Ikaztegietan jaioa, Benzunzibar baserrian. Aita jaiotetxe berekoa, eta ama Altzagakoa. Hamar senidetan bigarrena. Hiru bizitzako baserria zen beraiena. Aitak etxetik kanpo egiten zuen lan, lantegian, eta ahizpa zaharrena, neskame lanetan aritzen zen, etxetik kanpo hura ere. Pinak orduan, amari laguntzea izan zuen ardura, txiki-txikitatik. Etxeko jiran ibili zen urte askoan, anai-arrebak zaintzen eta etxeko lanetan laguntzen, gehienbat. Bere zaletasun nagusia, ordea, orduz geroztik, baratzeko lanetan jardutea izan da. Ikaztegieta bertara ezkondu zen, eta han bizi izan da beti.

Rosario Amundarain Esnaola (1937)



Ikaztegietan jaioa, Benzunzibar baserrian. Aita jaiotetxe berekoa zen eta ama Altzagakoa. Hamar senidetan zortzigarrena izan zen. Hiru bizitzako baserria zen beraiena, eta beste bizitzetako batean zortzi senide ere baziren. Baserriaren ondo-ondotik pasatzen zen erreka, beraz, etxe ingurua haurren bilgune bihurtzen zen atsedenean. Horregatik izan du Rosariok umetako garaiko hain oroitzapen ona. Jostun ikasketak egin zituen, eta ezkonberritan, Ikaztegietatik Lasartera joan zen bizitzera, baina urte gutxira itzuli zen berriz jaioterrira. Euskararen aldeko jarrera harro erakutsi izan du beti, ikastolaren aldeko apustu argia eginaz. Urtetan egin du lan etxean, lantegien enkarguak betez, etxera diru gehixeago sartze aldera. Azken urteetan, erretiroa hartuta Ikaztegieta bizi da.

Joxe Garmendia

Joxe Garmendia Arregi (1923)



Gurasoak orendaindarrak zituen. Aita Bidarte baserrikoa eta ama Gorostegikoa. Bera Gorostegin jaio arren, hamahiru hilabete zituela Orendaindik Ikaztegieta joan zen bere familia bizitzera. Bere gurasoek errota bat hartu zuten Ikaztegietan. Aita gazterik hil zitzairen, ordea, eta ama bost seme-alabarekin bakarrik gelditu zen etxean. Hala, Joxe Orendainera joan zen morroi. Han zen gerra hasi zenean.

Joxe Antonio Iturbe Balda (1936-2011)



Ikaztegietako Muñoa baserrian jaioa. Aita Bedaioko Zugasti baserrikoa zuen, eta ama Azkarateko Etxeberri baserrikoa. Biak morroi eta neskame gisa aritu ziren lanean bost urtez Ikaztegietako Muñoa baserrian, eta etxe hartan bizi zirenak beste batera joan zirenean, ezkondu eta bertan jarri ziren maizter. Hala jaio ziren Ikaztegietan zortzi senideak, Joxe Antonio laugarrena izaki. Etxean beti izaten zen lana eta gutxi joaten omen zen eskolara, baina hamahiru urterekin Fraisoroko "Granja Escuela"ra joan zen ikastera. Han sei hilabete besterik ez zituen pasatu, eta handik itzuliz geroz gogor egin izan zuen lan baserrian. Sekula ez zuen fabrikari lan egiteko tentaziorik eduki, nahiz eta hango soldataren ziurrak sarri inbidia eman. Baserritarren egoerarekin kezkatuta bizi izan zen beti, eta hala, Nekazal Kamarako presidente gisa aritu zen 1978. urtetik 2000. urtera, ondoren, erretiroa hartu zuen arte.

Fermina Lasa Luloaga (1919)



Aldabako Berazubi Erdi baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, Altzokoa. Baserrira Aldabako lurretan badago ere, hurbilago dago Alegia edo Ikaztegietatik, eta bi herri horietarako joera handiagoa zuten Aldabarako baino. Bost senidetan laugarrena, hamabi urte bete bezain laster Tolosako Casa Morales-era joan zen neskame. Etxeko andrea nafarra zen, Obanos herrikoa, eta hara joan ohi zen familia uda aldera lau hilabete pasatzera. Han ikasi zuen Ferminak gaztelaniaz. Gerra hasi zenean baserrira itzuli zen neskametza utzita, eta ondorenean, Aldabara bertara ezkondu zen, Ugaran Goena ("Uan Goena") baserrira. Handik, ordea, Ikaztegietara joan ziren bizitzera.

Maria Jesusa Olaberria Uliando (1936)



Ikaztegietako Artano baserrian jaioa. Ama Artano bertakoa zuen, eta aita Beidakar baserrikoa. Hamalau senide izan ziren denera (Maria Jesusa laugarrena), eta denbora batean bi baserritan bizitzen ere egon omen ziren, Artanon eta Beidakarren. Maria Jesusa "señorita de compañía" gisa joan zen Bilbora, hogeitaz urterekin. Han, gero, ofizinan hasi zen lanean publizitate agentzia batean. Hogeita zortzi urterekin, ordea, Ikaztegietara itzuli zen, etxera, eta oilo granja bat jarri zuen martxan. Hogeita hamahiru urterekin euskaraz alfabetatzeari ekin zion. Euskal Filologia ikasten ere hasi zen orduko EUTG-n, Dnostian, baina ikasketa horiek utzi eta magisteritza bukatu zuen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Aisia

1.1. Ordizian baltsean

- **Hizlaria(k)**: Amundarain Esnaola, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: IKA-001/025
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:43:13. **Bukatu**: 00:44:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- **Laburpena**: Alegiara josten ikastera joaten zen. Eskolatik atera zenean Ordiziara joan zen hiru urtez ontziak garbitzen ikastera. Ordizian baltsean ibiltzen zen, nahiz eta gero konfesatu behar izan.

Transkripzioa

- Ta, ordun, lehen esan dezu “Corte y confección” ikasten hasi ziñala.
- Bai.
- Alegia, zenbat urtekin hoi? Hamalau bat urtekin esan diazu.
- Ez dakit, gehio igual izango zian e. Zeatiken eskolatik atera ta seittun eon nitzen Ordizin izeba batekin. Ba ez omen zitzaian gustatzen ontzik garbitzea, eta esan zion amak —bere ahizpa zan—, esan omen zion: “Beno, aber honi erakusteionan ontzik garbitzen” eta harekin eon nitzen, Ordizin eon nitzen hiru urtetan. Han itten nun ba balsen mutillekin ta pekatue.
- Ene!
- Eta gero konfesatu in beharra, gauz berdiñe beti.
- Hoi da, hoi da, Ordizin balsen iten uzten zuen.
- Bai.
- Jo, hua pagotxa!
- Bai.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Baltsean ibili ondoren konfesatu beharra

- **Hizlaria(k)**: Amundarain Esnaola, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: IKA-001/026
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:44:03. **Bukatu**: 00:47:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Aisia » Kultura » Dantza
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena**: Ikaztegietan ermita bat zegoen (Zubiaurre jatetxea dagoen tokian, ikus mapan) eta Pilarreko Ama Birjinaren egunean festa egiten zutenean baltsean dantzatzea galarazi zuten. Orduan Aldabako

auzora joatea erabaki zuten. Ordizian berriz baltsean ibiltzea libre zen. Ordiziako kuadrillarekin oso ongi pasatzen zuten. Igandero musika egoten zen eta dantzan ibili ondoren konfesatu behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Hemen ´e ez zuen uzten, baiño guk itten genun e.
- Hoi da, hoi da, hoi da, hoi ahaztu in zait! Hemen iten zenuenen, hemengo apaizak esan zun bea bizi zan arten ...
- Alkatek esan zun hoi.
- Alkatiak?
- Bai.
- Nola zan hoi, nola zan hoi?
- Festak itten giñu... hemen ermitta bat dao gure etxe inguru, auzo hortan. Eta hor itten zien, taberna, hor, Toki-alai edo hoi, Zubiaurre eo ez dakit, jatetxe bat dao. Bai, badakizu? Beno berdin da ez balin badakizu´re.
- Bai, zubiaurreko paren dao.
- Bai, hoi da. Hor itten zan Amabergin Pilarikakua zan, eta urdun Pilarikatan itten zan festa, eta han balsen ibiltzen giñan gu. Ta behin in zigun /intziun/ galazi. Ta urdun esan gendun, kuadrilla bilduta: "A bai? Ba, zea jungo gaittuk ba, Tolosako auzo batea". Tolosako auzo horta jun giñen. Bueno hemen beheran dao, zeatik muga itten du ta, errekek itten du /itieu/ muga ta.
- Aldaba?
- Aldaba. Tolosan auzua da, ta han zer esateik ez alkatek, ez geunden Ikaztegietan ta.
- Errekan beste aldean balsen ta [...] amorrarrita.
- Bai.
- Hue bizi zan... hue alkate zeon bitarten ez omen zan herri hontan ingo balsen.
- Pekatua zan ordun dana.
- Onbre. Mutillai helduta ibiltzea zuk ba al dakizu zer zan...?
- Bide txarra, bide txarra. Ta, ordun, Ordizin derrepente han libre?
- Hauntza jun ta guk kuadrillan danok itten gendun. Earki asko pasatzen gendun guk han.
- Hoi izeban etxen bizi ziñala?
- Bai.
- Han kuadrilla´re in zendun?
- Bai, han launak in gendun, in nittun. Oaindiken´e harremana baudaket nik.
- Bai?
- Bai.
- Nola, inguruko auzoko gaztek? O nola ezautu zenittun?
- Ordizin? Ez dakit nundik nora baiño gu kuadrillatxo bat bagiñen, mordoxka bat bagiñen, zazpi-zortzi bat o. Eta bueno, burun pasa´re ez [ez gendunik] in behar mutillekin dantza! zeatik musika eoten zan igandero Ordizin, hua herri haundixogoa ta. Gu ibili itten giñen. Gero konfesatu in behar...
- Ordun komerik
- Ordun komerik
- Esaten zenuen, hola ta hola ibili nitzan ta...?
- Onbre!
- Ta apaizak ze esaten zizuen ?
- [Hik beakin bietan] igual.
- Behin ta berriz konfesatzea jun ta hola ez zizuen esaten, "joe neska, aurrekon´e bai ta"...

- Hoi pentsatzen det gogoan ez zuela eukiko, ez dakit... Pentsatzen det, jende gehio're juten zan ta, danak gogoan ez zittuela eukiko pentsatzen det, ez dakit.

- Ibiltzen al ziñaten nahita "Aurrekon apaiz harekin eon niñunan konfesatzen ta bestiana jungo naun aste hontan ta", ibiltzen ziñaten pentsatzen?

- Ni igual bai e, [jakiñ...], ez daket gogoan baiño...

3. Herria, azpiegitura

3.1. Ikaztegieta aldatu egin da

- **Hizlaria(k)**: Amundarain Esnaola, Rosario
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: IKA-001/027
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:47:06. **Bukatu**: 00:48:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena**: Ordizia Ikaztegieta baino handiagoa zen. Orain Ikaztegieta hazten ari da Tolosako jendea bertara etortzen delako. Herriko gazteentzat ere etxeak egin dituzte. Lehen baserritarrak ziren bertako gehienak.

Transkripzioa

- Ordizi zer zan urdun, Ikaztegieta alden...

- Onbre, uain bezelaxe. Hau uain'e herri txiki ze, uain ai da pixkat hazitzen, baiño... gehiegi igual, ez nuke gehiegi're hazi nahi baiño... Kanpoko jende pilla bat etorri da uain, azken aldi hontan, adosatuk-eta in dienen ta. Klaro, Tolosako jende gazte hoi, bikote gazte hoik, Tolosan dakea etxe bizitza normal-normal bat garestigo hemen... ba ikusten dezu /ikustezu/ terreno pixkatekin ta nola dakaten nik. Beno, nik daket haundina egia esate ezkeoz, danak txikigo... baiño adosatuk, hango prezion o bajugo, ta urdun danak etorri zien honea.

- Lehen ordia, hemengok Tolosa jungo zian.

- Bai, baiño uain etxek in dittue, hemen in zittuen baita're gazteentzat, herriko gaztek gelditzeko, gure segidakok die herriko gaztek, gazteentzako iñek. Bai, danak herriko dare hor bizitzen. Kanpotarrak ez dao. Ta hemen berriz danak kanpotarrak. Beno, kanpotarrak, esan nahi nuke Tolosa, Billabona... horko ingurukok.

-Ta, garai haitan, ordia, hemen jende baserritarra bakarrik biziko zan.

- Bai. Beno, kale-etxek baten o besten o hola, baiño ez, normalen baserritarrak.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Familiaren lanak eta jatorria (IKA-001/002)

Amona eta aitona ere etxean bizi ziren. Aitak enpresa txiki batean lan egiten zuen. Baserriko baratzean artoa eta garia ereiten zituzten, txerriak ere bazituzten. Ama Altzagakoa zen eta aita Bentzuntzibarrekkoa.

2. Hiru bizilaguneko etxea (IKA-001/003)

Goserik ez zuten pasa, baina luxurik gabe bizi ziren. Ondoko etxebizitza batekoek terreno gehiago zuten eta hobeto bizi ziren. Hirugarren etxebizitzakoek bizimodu gogorra izan zuten; izan ere, ama erditzerakoan hil eta aita bi semeekin gelditu zen.

3. Txikitako jolasak (IKA-001/004)

Inguruko baserrietakoak etortzen zitzaizkien jolasean ibiltzera. Korrikalari onak omen ziren ahizpa eta biak. Errepidean ibiltzen ziren lasterketak egiten. Trafikoa bazegoen, orain baino gutxiago baina nahikoa. Zabu bat ere bazuten eta oso ongi pasatzen zuten bertan. Ahizpak jolas gutxiago egiten zuen umeak zaindu behar izaten zituelako.

4. Ahizpa zaharrenak txikiak zaintzen zituen (IKA-001/005)

Ahizpa zaharrena umeak zaintzen ibiltzen zen. Gurasoak sorora joaten zirenean, haurtzaindegi moduan zaku batzuk lurrian bota eta zaharrenek txikiak zaintzen zituzten.

5. Baserri ondoko errekan jolasean (IKA-001/006)

Baserri ondoan erreka zuten eta udaran bertan bainatzen ziren, gurasoek siesta egiten zuten bitartean. Bazkaldu eta segituan sartzen ziren, digestioari begiratu gabe. Bazekiten igeri egiten. Batak besteari lagunduz ikasi zuten igeri egiten.

6. Errekan jolasean (IKA-001/007)

Gogoan du txikitan hondartzara joan izana. Ondoko baserrikoak ez ziren errekarra joaten. Errekan trapu zaharrez jantzita ibiltzen ziren, neskak soineko zaharrekin. Erreka erdian harkaitza zegoen eta handik behera botatzen ibiltzen ziren. Izugarri ongi pasatzen zuten.

7. Inuzente-eguneko txantxak (IKA-001/008)

Inguruko mutilek hildako untxi bati larrua kendu, lehortu, puztu, belarrekin bete eta inuzente-egunean ziria sartzeko erabiltzen zuten. Untxia soka batekin lotu eta kamioiak errepidean pasatzen zirenean tira egiten zioten. Arrisku handia zen, baina urtero egiten zuten eta beti kamioi jabe berdina tranpan erortzen zen. Donostiako lehengusuak hura ikustera etortzen ziren.

8. Nesken jolasak (IKA-001/010)

Neskak nobiotan jolasten ziren. Herriko bikoteak imitatzen zituzten. Egurrezko takoiak iltzeekin zapatei lotzen zizkien eta jolasean ibiltzen ziren. Goman eta sokasaltoan ere jolasten ziren. Erdarazko kantak abesten zituzten. .

9. Eskolakoa esperientzia txarra izan zen (IKA-001/011)

Eskolan errekreoan ere erdaraz hitz egin behar zuten, ongi jakin ez arren. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Maila guztietakoak irakasle

berdinarekin egoten ziren beraz, ikasle handienak txikiei lagundu behar izaten ziren. Gaizki pasa zuen eskolan ezer ulertzen ez zuelako. Gauzak gaizki egiten zituztenean jo egiten zituzten. Beldurra pasa zuen. Anaiek piper ugari egin omen zuten.

10. Gau-eskolara mutilak bakarrik joaten ziren (IKA-001/012)

Mutilak gau-eskolara joaten ziren; neskak, berriz ez, behin ezkonduz gero etxean gelditu behar zirelako. Mutilak Alegiara joaten ziren, eskolan ikastea garrantzitsua zelako. Rosario josten ikastera joan zen. Geografia gustuko zuen.

11. Eskolan erdaraz, ezer ulertu gabe (IKA-001/013)

Eskolara sartzean eskua jasota 'Viva España' abestu behar izaten zuten. Komunera joan nahi bazuten "permiso, usted" esaten omen zuten. Ez zuten erdaraz tutik ere ulertzen. Oso inozenteak zirela dio. Goizez eta arratsaldean joaten ziren eskolara.

12. Franco agurtzen bandera eta guzti (IKA-001/015)

Udaran Espainiako banderak egiten zituzten eta Franco Donostiako bidean pasatzen zenean errepidera ateratzen ziren. Esandakoa egiten zuten. Francok agur egiten zien auto barrutik.

13. Jostea gustatzen zitzaion (IKA-001/019)

Jostea gustatzen zitzaion. Alegian ikasi zuen. Ama ere josten aritzen zen igande arratsaldeetan, arropak konpontzen.

14. Txikitako jantzeko modua (IKA-001/020)

Zaharrenean arropak txikiei pasatzen zitzaizkien. Galtzak belauneraino izaten ziren 15 urte bete arte. Neskak soinekoekin ibiltzen ziren. Gonak behearaino izaten ziren, ez zutelako barruko arroparik eramaten. Denak antzera jantzita ibiltzen ziren.

15. Panpinak egiten zituzten (IKA-001/021)

Rosariok bere panpinak egiten zituen maindire zaharrak erabiliz. Tinta txinarekin margotzen zituzten. Ilea arto bizarrekin moldatzen zuten.

16. Tortolosean eta kaniketan (IKA-001/022)

Tortolosean eta kaniketan ibiltzen ziren. San Jose egunean, arkumea jaten zutenean, tortolosak gordetzen zituzten. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren. Kanikak ibaiko harri borobilekin moldatzen zituzten. Lurrean jolasten ziren.

17. Galtzak jantzi zituen motoan ibiltzeko (IKA-001/023)

Ikaztegietan Rosario izan zen galtzak jantzen lehena. Bere amak ere galtzak oso goiz jantzi zituen. Auzoko lagun batek motoa zuen eta bertan ibiltzeko galtzak hobeagoak zirela ikusi zuen. Bizikletan ere ibiltzen ziren, baina okerturik, bizikleta handiegia zelako. Behin jantziz gero oso maiz erabili ditu. Komentario txarrak egingo zituztela pentsatzen du, baina berdin zaio.

18. Galtzak janztea ez zegoen ongi ikusita (IKA-001/024)

Umeak autoan hartuta oporretara joaten zen bera bakarrik, gizonari gustatzen ez zitzaiolako. Galtzak 17 urte zituenean jantzi zituen eta orain denek erabiltzen dituzte. Mendira ere galtzekin hobeto joaten zen. Santanderrera moja bat bisitatzea joan zen batean hark galtzak kendu eta gona janztera behartu zuen. Mojak fraideak baino itxiagoak direla pentsatzen du. Kritikatua izan zela badaki, baina ez dio axola.

19. Euskara hitz egiteko modu desberdinak inguruko herrietan (IKA-001/028)

Batzuetan Alegiara edo Legorretara joaten ziren. Zinemara Tolosara edo Ordiziara. Koadrilen arabera joera bat edo bestea izaten zen. Hizkera aldatu egiten da Ikaztegietatik Alegiara. Alegiakoeak hizkera propioa dutela dio eta erraz antzematen zaie nongoak diren. Tolosatik aurrera batuaren antzera hitz egiten da. Legorretan Goierrikoen antzera hitz egiten dute. Itsasondon, Ordizian eta Zumarragan berdintsu hitz egiten da.

20. Goierrian euskara ongi mantendu da (IKA-001/029)

Ikaztegietaoak erdian daude. Lehen Goierritarrak zirela dio baina orain Tolosaldeakoak egin dituzte. Rosariok Goierritarra izatea nahiago du, bertan euskara gehiago mantendu dutelako. Gazteak zirenean Tolosan dendetan euskaraz hitz egiten zen. Gaur egun jendeak kalean erdaraz asko hitz egiten du. Garai batean erdaraz hitz egiteak kategoria ematen zuen. Mutilek euskaraz gehiago egiten zuten neskek baino.

21. Lasarten oso giro erdalduna zegoen (IKA-001/032)

Legorretan paper-fabrika zegoen, baina Ikaztegieta orain egin dituzte pabiloiak. Ezkonduta Lasartera joan ziren bizitzera. Han erdaldun asko zeuden. Gizonak Michelinen sartzeko aukera izan zuen eta Lasarten pisua erosi zuten bertan bizitzeko. Lau edo bost urte egon ziren han baino ez zuten asteburu bat ere Lasarten pasa, beti Ikaztegieta bueltatzen ziren. Normalean euskaldunekin ibiltzen ziren, baina giroa oso erdalduna zen.

22. Iparraldera joaten zireneko inpresioak (IKA-001/039)

Bazterrak ezagutzea asko gustatu zaio. Iparraldera askotan joaten ziren eta bertako txukuntasunak harritzen zuen. Hango amonen janzkera ere desberdina zen, kolore gehiago erabiltzen zuten. Herri Urratsera urteetan joan dira. Iparraldeko jendearen euskara ulertzea kosta egiten zitzaien.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com